

Erlijioa Nafarroako Foruetan (II)

Tras aquella Edad Media que evocamos aquí, los Fueros navarros modernos en nada menguaron su cuidado por las cuestiones religiosas; al contrario, completaron y trataron de perfeccionar lo ya establecido, acomodándolo a lo que parecía mejor a las nuevas circunstancias, tales como la anexión del Reino a la Corona castellana, las precauciones por la ortodoxia, la contrarreforma católica, la geografía diocesana, etc.

Aro Modernoan (Nafarroan batez ere 1512tik aurrera), buruhauste eta erronka berriak agertu ziren Erreinuko politikan eta Legeetan. Bistan da Legeek ez zutela agortzen Erreinuko bizilagunen bizitza, eta egunerokoan jendeak bidea bere kabuz egiten zuela, baina Foruei buruz ari garenez esan dezadan, garaiko mentalitate eta asmo politikoen ispilu esanahitsua direla Foruak, beren legetasun soilean ere.

Garai berriak

Aro Modernoak eginkizun eta arazo larriak ekarri zituen, batzuek lehendik ezagunak zirenak, eta beste zenbait berri: Amerika aurkitu zen, Errenazimentuak jakite eta arteak astindu eta garatu zituen, monarkia nazionalak absolutismora jo zuten, erreforma erlijiosoek (katoliko eta protestanteek) aurrez aurre astindu zituzten Erakundeak eta kristauen kontzientziak.

Nafarroa ez zen geratu historiaren aldarte horietatik at, are gutxiago Erreina Errege Katolikoek Gaztelako Koroaren mendean jarri zutenetik (1515), eta Legeek ere egoera politiko berriaren hori aintzakotzat hartu behar izan zuten. Bestalde, Nafarroa lurralde arriskutsua bilakatu zen ortodoxia erlijioso-

arentzat, Iparraldeko Nafarroa Beherean kalbionismoak leku ofiziala irabazi zuenetik (1560). Arrazoi bat gehiago Nafarroa Garaiko ipar mugaldea kontuz zaintzeko.

Trentoko Kontzilioaren (1545-1563) arauak Foru-legeetan ere jaso ziren (1564), eta Diozesiko Sinodoek dena berretsi zuten (1590). Tartean, politika erlijioso bateratua lortzeko, bi Erakunde-erreforma ikusten zituen Koroak premiazkoak: Baionako gotzainek euskal Hegoaldean zuten barrutia kendu eta horkoa Iruñeko Gotzainaren esanetara jartzea, eta bigarrena, Nafarroako Ordena erlijiosoak Gaztelako bilgunera eramatea. Nahiz zen gisara, baina Koroaren gobernu-erosotasunerako beharrezkoak ziren bi urrats horiek ematea.

Baionak Baztanen eta Hodarribialdean ere eskumena izatea jasanezina gertatu zitzaion Felipe II.ari, eta Trentoko erreformarena arrazoi edo aitzakia zela, Erroman presio egiten saiatu zen, harik eta Pio V.ak diozesi arteko mugak aldatzeko eta Iruñeko gotzaindegia barrutia zabaltzeko erabakia hartu zuen arte (1567). Erreinuko Gorteen ere lagundu zuten asmo bera, izan ere "por el peligro de las cosas de la religión y diversidad de reyes y reinos y lenguaje trae grandes inconvenientes" beldur omen ziren denak ere.



Erlijosoen barrutiena nahasiagoa zen, Hainbat Ordena baitziren tartean, bakoitza bere barruti-banaketa bereziarekin: bakoitzarena ikusi behar zen, eta ahal zelarik, Gaztelakoarekin lotu, izan ere Erdi Arotik kontrako tradizioa ere bazuten nafarrek aragoitarrekin barruti beretan elkartzeko (beneditarrek, frantziskotarrak, etab.).

Dena den barrutiena baino lehenagokoa eta funtsezkoagoa zen Ordenen erreforma orokorra bera. Hau bai zela arazo minbera, Goñi Gaztanbidek gogorarazi digunez: "La intervención del monarca español en este asunto no obedecía solamente a móviles sinceros de carácter religioso, sino también al propósito de unir y someter Navarra a Castilla en lo eclesiástico, como ya lo estaba en lo político".

Erlijosoen arlo honetan galdetzekoa da XVI. mendeko haizeek Nafarroako agintarien artean ez ote zuten gerora kontrako bidea hartu, XVII.eko kaputxino nafarrak oso nafar gertatu baitziren (1679) eta karmeldarrak ere hor nonbait (1706), beren "Nafarroako Pro-bintziak" sortzean. Baina hau ez da Foruetan datorrena, Nafarroako Administrazio orokorrarena baizik.

Gainerakoan, esan behar da Foru-legeetan eta politikan bi aginteak, zibila eta eliztarra, elkarren lehian ibili zirela Aro Modernoan: hasteko, 1512ko konkista Julio II.aren oniritziarekin egin zuen Fernando Katolikoak. Erakundeen bizitza arruntera gatzozela, esatekoa

da Gotzain eta Abadeak Gorteetako eta Diputazioko Buru izan ohi zirela. Eta, alderantziz, Erregeak ere bazuen eskumenik Elizan, Erret Zaingoaren bidez hainbat eliz kargutarako hautagaiak aurkezteko.

Foruen arabera, lege-gizonen (epaile eta abokatuen) prestakuntza eta gaitasunerako nahitaezkoa zen Elizaren Zuzenbide kanonikoaren ezagutza, oro har Zuzenbide hori baitzen Erreinuko Elizaren Legea, nahiz eta aitortuta zegoen nafar Foruak (arazo zibiletan edo) Zuzenbide Kanonikoaren gainetik egon behar zuela (1622).

Gotzainek gogotsu zaindu zituzten beren eskumen juridikoak, eta epaitegi zibil eta eliztarren arteko tirabirak ez ziren falta izan: baketze aldera, Gorteek bien arteko harreman-arauak jarri zituzten (1575). Bestalde, Inkisizioaren zereginak eratu eta antolatu beharra egon zen (1620), Zugarramurdin eta gertatutako gehiegikeriak mozteko (1610).

Herritarren biziera morala legez ere zaindu zen: birao, sexu-burubide publiko, joko, igandeetako lan, jai eta abarrek beren zigor arautuak zituzten. Foruek Elizaren alde ekonomikoa ere begiratzen zuten (hamarrenak, limosnak, bulda: 1590). Beraz, nolabait esateko, gizarteko "eliztartasun" hori ez zen Erakundeetako kontua bakarrik, herritar bakoitzarenganaino iristen baitzen.

Joseba Intxausti